



**2025EKO IRAILAREN 25EKO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita bostean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko ekainaren 26an eta uztailaren 17an egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 6 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-  
TEA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

LAZKAOKO  
UDALA

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenaren irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), aurreikuspenaren hanka-sartze handia dela eta ezin dutela babestu. Abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzun dio, beharrak handitu direla eta behar horiek artatu egin behar direla.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), beharrak bete behar direla baina aurreikuspena zorrotz bete beharko liratekeela.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 7 botoekin (EAJ-PNV), 6 abstentzioz (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 6 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientearen onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapituluak                 | Izena                                   | Gehikuntzak         |
|----------------------------|-----------------------------------------|---------------------|
| II                         | Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan | 319.300,00 €        |
| IV                         | Transferentzia arruntak                 | 13.850,73 €         |
| <b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b> |                                         | <b>333.150,73 €</b> |

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapituluak     | Izena             | Zenbatekoa          |
|----------------|-------------------|---------------------|
| VIII           | Finantza aktiboak | 333.150,73 €        |
| <b>GUZTIRA</b> |                   | <b>333.150,73 €</b> |

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### IV.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako transferentzia bidezko 2. kreditu aldaketaren berri eman du.



Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

#### V.- ARKITEKTO LANPOSTUA LANPOSTU ZERRENDAN SARTZEA.-

Alkateak arkitekto lanpostua, Lanpostu Zerrendan sartzea proposatzen du eta horretarako azalpenak eman ditu:

Gaia azaldu eta eztabaidatu ondoren, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutakoen aho bateko adostasunez, honako hau ERABAKI DU:

Lazkaoko udaleko Lanpostuen Zerrendan arkitekto lanpostua sartzea onartzea, ondoren adierazten diren ezaugarrien arabera:

- Lanpostuaren izena: Arkitektoa
- Lanaldia: % 70
- Taldea: A1
- Destino osagarriaren maila: 25
- Berariazko osagarria: 15.312,50 €
- Hizkuntza Eskakizuna: 4
- Betetzeko modua: lehiaketa-oposizioa (karrerako funtzionarioa)
- Mendekotasun organikoa: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Saila

#### VI.- GOIEKIREKIN HITZARMENA, HIRIGOIEN 56-58 LOKALEN EKINTZAILEEN ERABILERARAKO.-

Lazkaoko Udala Hirigoien kaleko 56. eta 58. zenbakietan dauden udal-lokalen titularra da. Lokal horiek gaur egun erabilgarri daude.

Tokiko ekintzailetza eta udalerriaren garapen ekonomikoa sustatzeko, komenigarritzat jotzen da lankidetzaz-esparru bat ezartzea GOIEKIREkin – Goierriko Garapen Agentzia. GOIEKIk eskualdeko ekintzaileei eta enpresa-sareari laguntza eskeintzen die.

GOIEKIk interesa agertu du lokal horiek, aldi baterako, ekintzaileei uztea, beraien enpresa-proiektuak inkubatu edo sendotzeko udalaren garapen ekonomikorako udal-politikekin koordinatuta.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio zergatik GOIEKIREn aldetik teknikari batek sinatzea proposatzen den eta ez politikari batek. Zergatik ez lehendakariak?

Alkateak testuaren proposamena GOIEKIREtik proposatua izan dela erantzun dio eta ez dela izan udalaren erabakia.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), proposamena bere hortan sinatzea ez dutela onartuko dio. Adur Ezenarrok sinatu beharko luke. Zuzenketa eta sinadura atzeratzeko eskatzen dute.



Alkateak dio GOIEKIri zuzenketa eskaera luzatuko dela eta arazorik ezean ados gaudela.

Gaia azaldu eta eztabaidatu ondoren, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutakoen aho bateko adostasunez, zuzenketaren baldintzarekin, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Lazkaoko Udalaren eta GOIEKI-ren – Goierriko Garapen Agentzia - arteko lankidetz hitzarmena onartzea. Hitzarmenaren helburua, Hirigaien 56-58an dauden udal-lokalen aldi baterako erabilera lagatzea da, GOIEKIk, ekintzailetzari laguntzeko programen barruan kudeatu ditzan.

**Bigarrena.-** Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatea baimentzea, hitzarmena eta akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Hitzarmenak lokalak erabiltzeko baldintza espezifikoak ezarriko ditu, honako hauek barne:

- Lagapenaren iraupena.
- Ekintzaileen sarbide-betekizunak.
- Mantentze-lanen, horniduren eta aseguruaren arloko erantzukizunak.
- Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko araubidea.
- Akordioa berritzeko edo aldeztu aurretik suntsiarazteko aukera.

**Laugarrena.-** Erabaki hau GOIEKIri eta dagozkion udal-zerbitzuei helaraztea, betearazi eta kontrola dezaten.

**Bostgarrena.-** Lankidetz hitzarmen honek 4 urtetako iraupena izango du, luzagarria izango dena, aldeek aldeztu aurretik idatziz adosten badute.

## VII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

## VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

The image shows a handwritten signature in blue ink over a circular official stamp. The stamp contains the text 'LAZKAOKO UDALARENA' in blue capital letters. The signature is a cursive script, likely belonging to the Mayor (Kepa Zubiarrain) mentioned in the text.